



ALKATETZAREN BANDOA ZARAUZKO HONDARTZAKO 2020KO UDALDIKO ARAUAK

COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren egoerak gaixotasuna ez zabaltzeko zenbait neurri hartzea eskatzen die erakundeei, profesionalei eta, oro har, herritarrei, bakoitzak bere erantzukizunaren arloan.

Hondartzak aisialdirako eta jolaserako lekuak dira, eta jende asko erakartzen dute udaldian. Gipuzkoako Lurralde Historikoan datorren uztailaren 1ean hasiko da udaldia.

SARS-COV-2-K ERAGINDAKO PANDEMIA EGOERAN EAE-KO HONDARTZAK ETA BAINURAKO LEKUAK IREKI ETA ERABILTZEKO OSASUN IRIZPIDEAK argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak.

Kudeatzaileen erantzukizuna da beren eskura dituzten neurriak jartzea jende-pilaketa handirik ez gertatzeko eta distantzia soziala errespetatzeko. Hondartza bakoitzean baloratu egin behar da zein prebentzio-neurri eta erabilera-arau berri jarri daitezkeen eta zeintzuk diren egokienak.

Adibide gisa, hainbat neurri hartzea gomendatzen da; adibidez, hondartzara sartzeko kontrolak jartzea, sarrerak eta irteerak antolatzea, aforoak kontrolatzea, ordutegiak mugatzea, etab.

Egoera horren aurrean, Zarauzko Udalak uste du guztiz beharrezkoa dela prebentziozko neurri batzuk jartzea, jokabide pertsonalei buruz eta Zarauzko Udalaren antolaketari eta zaintzari buruz. Hauek dira:

TOLDOEN ZERBITZUA

2020ko udaldian ez da toldorik jarriko Zarauzko hondartzan.

AFOROA KONTROLATZEKO ZERBITZUA

- IBON ELORZA SOLIS jaunarekin kontratatu da zerbitzua, zegokion kontratazio-prozeduraren bidez.
- Hondartza mugatuta egongo da, eta 7 sarrera izango ditu. Egokitutako zazpi gunetako batetik bakarrik sartu eta atera ahal izango dira hondartzatik erabiltzaileak.
- Udalak gehienezko aforoa berrikusiko du, gutxienez hamabostean behin. Dena den, itsasgoran gehienezko aforoa 4.000 pertsonakoa izango da.
- Udaldiko egun bakoitzeko maren ordutegiak, eta itsasgoran eta itsasbeheran izan beharreko gehienezko aforoak adieraziko dituen egutegi bat egongo da.

- Sarrera bakoitzean pertsona bat egongo da denbora guztian gune horretako aforoa eskuz kontrolatzen, eta pertsonak alde batetik sartu eta bestetik irten daitezen arduratzen.
- Egunaren hasieran hondartzara sartzeko pasilloa mugatzen duten banderolak jarriko dituzte kontrolatzaileek, eta egunaren bukaeran kendu egin beharko dituzte, baita mareen arabera ere.
- Sarrera bakoitzean kontrol-gune bat egongo da (kaseteta). Egunaren hasieran, Udalak emandako seinalez tapena jarri beharko da, zerbitzua erabakitako orduan has dadin. Egunaren bukaeran gauza bera egin beharko da. Materialak propio jarritako kasetetan gordeko dira.
- Kontrolaz arduratzen diren langileek beharrezko informazioa emango diete erabiltzaileei, definitutako protokoloen arabera.
- Puntu guztietako seinaleak guztiz ondo ikusteko moduan egongo dira.
- Hondartza gehienezko aforoaren % 80ra iristen denean, zerbitzuaren arduradunak Udaltzaingoa abisatu dio eta/edo datuak APP-an irauli, halakorik balego.
- Zona bateko aforoa betetzen denean, zona hori itxi egingo da, eta ezin izango da berriz ireki harik eta bertatik 50 pertsona irten arte (edo momentu bakoitzean Udalak erabakitzen duen kopurua).
- Udaltzaingoa arduratuko da zerbitzu berrian gertatzen diren intzidentziak konpontzeaz.
- Aforoa kontrolatzeko ordutegia hau izango da: 10:00-18:00. Udaldian zehar Udalak ordutegiak atzeratu ahal izango ditu (10:30-18:30).

HONDARTZAKO EGONALDIA

- Hondartzan gehienez 2-3 ordu egotea aholkatzen da.
- Gutxienez 1,5 metroko tartea egongo da elkarrekin bizi ez diren pertsonen artean, uretan eta hondarretan.
- Beste erabiltzaileekiko 1,5 metroko segurtasun-perimetroa bermatzeko moduan kokatuko dira objektu pertsonalak (toallak, hamakak eta antzeko elementuak), elkarrekin bizi direnen artean izan ezik.
- Eserlekuak eta sonbrillak erabili ahalko dira, zirkunstantziak aukera ematen badute.

KOMUN PUBLIKOAK

- IBON ELORZA SOLIS jaunarekin kontratatu da komun batzuen zerbitzua (zegokion kontratazio-prozeduraren bidez); eta beste hiru komunak, berriz, pasealekuko kantinen adjudikazioarekin lotuta daude.
- Erabiltzaileei ordenantza fiskaletan adierazitako prezioa kobratuko zaie komunetan eskainitako zerbitzuengatik.
- Sarreran segurtasun-tarteei buruzko kartelak jarriko dira, eta adieraziko da pertsona bakarra sartu ahal dela barrura. Besteek kanpoan itxaron beharko dute.
- Barruan kartel bat jarriko da eskuen garbiketari buruz; eta adieraziko da komunontziko tapa itxita dagoela tirako zaiola ponpari.
- Denboraldiaren hasieran, egunean gutxienez 4 aldiz egingo da garbiketa, eta 6 aldiz goi-denboraldian; egindako garbiketen erregistro bat egingo da.
- Dutzak itxita egongo dira jendearentzat, eta komunetan osasun-agintariak erabakitako aforoa errespetatuko da.
- Komun publikoen ordutegia hau izango da: 10:00-20:00.

HONDARTZETAN BANAKAKO PREBENTZIO NEURRIAK HARTZEKO ETA HORIEK ARDURAZ ERABILTZEKO EMAN BEHARREKO MEZUAK INDARTZEA

Prebentziozko neurriei eta hondartzako erabilerari buruzko mezuak indartu:

Hondartzara joan baino lehen:

- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzu (sukarra, eztula, arnasketa-sintomak), ez joan hondartzara. Deitu zure osasun-zentrora.
- Joan hurbileko bainu-leku batera, eta informa zaitez bertako erabilerari, sarrerari eta aforoari buruz.
- Hondartzan egonaldi laburragoak antolatu (gehienez 2-3 ordu). Pilaketarik ez gertatzeko eta hondartza partekatzeke modu bat da.

Hondartzan edo bainu-lekuan:

- Gutxienez 1,5 metroko tartea gorde zurekin bizi ez diren pertsonetik, uretan eta hondarretan.

- Eskuak sarritan garbitu eta desinfektatu. Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa, aurrez eskuak garbitu gabe.
- Eztul edo doministiku egitean ahoa estali, erabili eta botatzeko zapi batekin edo ukalondoaren barnealdearekin.
- Ez partekatu toallak; etxera iristean toallak eta bainujantziak garbitu.
- Haurrak zaindu, eta ahalegindu prebentzio-neurriak bete ditzaten.
- Hondartzako erabilera arauak eta baldintzak jarraitu. Errespetatu salbamendu eta sorosle zerbitzuen eta aforoa kontrolatzen ari diren langileen jarraibideak eta gomendioak.
- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzu (arnas-sintomak, sukarra...), joan hondartzatik eta deitu zure osasun-zentrora.

DUTXAK ETA OINAK GARBITZEKO ITURRIAK

- Aldageletako eta barruko beste espazio batzuetako dutxak itxita egongo dira.
- Kanpoko dutxak irekita egongo dira.
- Oinak garbitzeko iturriak itxita egongo dira.

ITURRIAK

- Kontakturik ez dadila egon erabiltzailearen ahoaren eta iturriaren ahoaren artean.

ZAKARRONTZIAK

- Garbiketa eta desinfekzioa areagotu egingo dira.

SOROSLEEN POSTUAK

- Kartel bat jarriko da postura hurreratzen diren pertsonen gogorarazteko 1,5 metroko tartea gorde behar dutela besteekiko txandan dauden bitartean.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAK esaten du une oro errespetatu behar direla ordenantzan adierazitakoak, zaintza eta laguntza zerbitzuek segurtasunaren izenean ematen dituzten jarraibideak, eta emanda dauden xedapenak (edo organo eskudunek aurrerantzean ematen dituztenak).

Kontuan hartuta herritarren lankidetzaren behar-beharrezkoa dela COVID-19a ez zabaltzeko, araudi honetan jasotako betebeharrak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, eta

arlo honetako zigor-ahalmena baliatzeko lege edo arau bidez jarritako prozeduraren arabera zigortuko da.

Hauek dira arau-hausteak, hasiera batean arinak:

- a) Propio egokitutako gunetatik ez beste nonbaitetik sartzea hondartzara.
- b) Sarrerak itxita daudenean hondartzara sartzeko debekua ez errespetatzea.
- c) Itsasoa igotzen denean eta aforoa murrizten denean hondartzatik alde egiteko eskaerari kasurik ez egitea.
- d) Bando honetan jarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

Dena den, arau-hauste arinak errepikatzen edo behin eta berriz egiten badira, arau-hauste larritzat hartuko dira. Errepikapena egongo da arau-hausteak aurretik bi arau-hauste arin egin baditu.

Azkenik, arau-hauste oso larritzat hartuko da, arau-hauste larriak errepikatzen edo behin eta berriz egiten badira. Errepikapena dagoela ulertuko da arau-hausteak aurretik bi arau-hauste larri egin baditu.

Arau-hausteak isun hauekin zigortuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: ohartarazpena eta 30 euroko isuna.
- b) Arau-hauste larriak: 300 euroko isuna.
- c) Arau-hauste oso larriak: 1.000 euroko isuna.

Zarautz, 2020ko ekainaren 24a

Alkatea

Sin. Xabier Txurruka Fernandez

BANDO DE LA ALCALDÍA SOBRE NORMAS DE REGULACION DE LA PLAYA DE ZARAUZ DURANTE LA TEMPORADA ESTIVAL DE 2020

La situación de crisis sanitaria provocada por el COVID 19 exige la adopción de las medidas necesarias en evitación de la propagación de la enfermedad por parte de las instituciones, profesionales y ciudadanía en general, en cada una de las áreas de su respectiva responsabilidad.

Las playas son lugares de ocio y esparcimiento que atraen a un gran número de personas durante la temporada estival, que en el Territorio Histórico de Gipuzkoa dará comienzo el próximo día 1 de julio.

La Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco ha publicado en el mes de mayo los CRITERIOS SANITARIOS PARA LA APERTURA Y USO DE LAS PLAYAS Y ZONAS DE BAÑO DE LA CAV EN SITUACIÓN DE PANDEMIA POR SARS-COV-2.

Es responsabilidad de los gestores implementar las medidas a su alcance para evitar aglomeraciones excesivas y facilitar el cumplimiento del distanciamiento social. En cada playa debe valorarse qué medidas preventivas y nuevas normas de uso pueden implantarse y son más convenientes.

A modo de ejemplo se recomienda la adopción de medidas como el control de accesos a las playas, sentidos de entrada y salida, control de aforos, limitaciones de horarios, etc.

Ante esta situación, el Ayuntamiento de Zarautz ha considerado de todo punto imprescindible establecer unas medidas preventivas relacionadas con comportamientos personales, así como relativas a la organización y mantenimiento de la playa de Zarautz, que se concretan en las siguientes:

SERVICIO DE TOLDOS

Durante la temporada de 2020 no se instalarán toldos en la playa de Zarautz

SERVICIO DE CONTROL DE AFORO

- El servicio se ha contratado, mediante el correspondiente procedimiento de contratación, con D. IBON ELORZA SOLIS.
- La playa estará delimitada y contará con 7 entradas. Las personas usuarias solamente podrán acceder a la playa y salir de la playa desde una de las siete zonas habilitadas.
- El aforo máximo se revisará por el Ayuntamiento, al menos quincenalmente, siendo el aforo máximo en pleamar 4.000 personas.
- Se dispondrá de un calendario con los horarios de las mareas, aforos máximos en bajamar y pleamar para cada uno de los días de la temporada.

- En cada uno de los accesos habrá una persona encargada de controlar en todo momento de forma manual el aforo de la zona y las entradas/salidas de personas de forma separada.
- Al inicio de la jornada las personas controladoras deberán colocar las banderolas que delimitan el pasillo de acceso a la playa, al finalizar la jornada deberán recogerlas, así como en base a las mareas.
- En cada entrada habrá un punto de control (caseta). Al inicio de la jornada se deberá colocar la señalización dispuesta por el Ayuntamiento de manera que el servicio empiece a la hora estipulada. Se deberá hacer lo mismo al finalizar la jornada. Los materiales se guardarán en las casetas dispuestas para tal efecto.
- El personal encargado del control dará la información necesaria a las personas usuarias, en base a los protocolos definidos.
- La señalización de todos los puntos será perfectamente visible.
- La persona encargada del servicio tendrá que pasar aviso a la Policía Municipal cuando el aforo máximo llegue al 80% del total y /o volcar los datos en la APP en caso de que se disponga de ella.
- Cuando se complete el aforo de alguna de las zonas, ésta se cerrará y no se volverá a abrir hasta que salgan 50 personas, o lo que decida el Ayuntamiento en cada momento.
- Será la Policía Municipal la encargada de resolver las incidencias que puedan producirse en el nuevo servicio.
- El horario del control de aforo será de 10:00-18:00h. El Ayuntamiento podrá retrasar los horarios a lo largo de la temporada (10:30-18:30)

ESTANCIA EN LA PLAYA

- Se recomienda un máximo de 2-3 horas de estancia en la playa.
- Debe mantenerse una distancia de al menos 1,5 metros con las personas con las que no se conviva, tanto en el agua como en la arena.
- La ubicación de los objetos personales, toallas, tumbonas y elementos similares se llevará a cabo de modo que se garantice un perímetro de seguridad de 1,5 metros con respecto a otras personas usuarias, salvo en el caso de convivientes
- Se podrá hacer uso de sillas y sombrillas siempre que lo permitan las circunstancias

ASEOS PUBLICOS

- Unos servicios se han contratado, mediante el correspondiente procedimiento de contratación, con D. IBON ELORZA SOLIS y los otros tres están vinculados a las adjudicaciones de las cantinas del paseo.
- Por los servicios ofrecidos en los aseos, se cobrará a las personas usuarias los precios que se indican en las ordenanzas fiscales.
- Se colocarán carteles en la entrada sobre guardar distancia en la entrada y no más de una persona en el interior, esperar fuera, al aire.
- Se colocará un cartel interior sobre limpieza de manos y accionar cisterna con tapa de inodoro cerrada.
- La limpieza se hará como mínimo 4 veces al día al inicio de temporada y 6 veces en temporada alta, y deberá llevarse un registro de las limpiezas realizadas.
- Las duchas permanecerán cerradas al público, y en los aseos deberá respetarse el aforo determinado por las autoridades sanitarias.
- El horario de los aseos públicos será de 10:00-20:00h

REFUERZO DE LOS MENSAJES A LA CIUDADANÍA SOBRE MEDIDAS PREVENTIVAS INDIVIDUALES Y SOBRE EL USO RESPONSABLE DE LAS PLAYAS

Se reforzarán los mensajes sobre medidas preventivas y uso de la playa:

Antes de ir a la playa:

- Si tiene síntomas compatibles con la COVID-19 (fiebre, tos, síntomas respiratorios...) no acuda a la playa. Consulte con su centro de salud.
- Acuda a una zona de baño próxima e infórmese de las condiciones de uso, de acceso y aforos.
- Planifique estancias más cortas en la playa (máximo de 2-3 horas). Es una forma de reducir aglomeraciones y de compartir.

En la playa o zona de baño:

- Mantenga al menos 1,5 metros de distancia con las personas con las que no conviva, tanto en el agua como fuera.
- Lávese y desinfectese las manos frecuentemente. Evite tocarse ojos, nariz y boca sin haberse lavado antes las manos.

- Cubra la boca al toser y estornudar con un pañuelo desechable o con la parte interna del codo.
- No comparta toallas y lave las toallas y trajes de baño al llegar a casa.
- Vigile a los menores e insista en que cumplan las medidas preventivas.
- Siga las normas y condiciones de uso de la playa. Respete las indicaciones y recomendaciones de los servicios de salvamento y socorrismo y del personal encargado del control de aforo.
- Ante síntomas compatibles con la COVID19, síntomas respiratorios, fiebre..., abandone la playa cuanto antes y consulte a su centro de salud.

DUCHAS Y LAVAPIÉS

- Se eliminan las duchas de vestuarios y de otros espacios interiores.
- Se mantienen las duchas exteriores
- Se mantienen cerrados los lavapiés

FUENTES

- Se evitará el contacto entre la boca de la persona usuaria y la boquilla del grifo del surtidor.

PAPELERAS

- Se extremará la limpieza y desinfección.

PUESTOS DE SOCORRO

- Se colocará un cartel en la entrada recordando a las personas que se acerquen al puesto que deben esperar en fila guardando la distancia mínima de 1,5 metros.

INFRACCIONES Y SANCIONES

La Ordenanza reguladora del régimen de utilización de usos en la playa de Zarautz contempla la obligación de respetar en todo momento, además de las previsiones contenidas en la misma, aquellas orientaciones que por seguridad puedan realizar los servicios de vigilancia y asistencia y cuantas disposiciones existentes o que puedan dictarse en lo sucesivo por los organismos competentes.

Siendo imprescindible la colaboración ciudadana para la evitación de la propagación del Covid 19, el incumplimiento por parte de las personas usuarias de las obligaciones contenidas en esta regulación se considerarán infracción y serán sancionadas conforme al



procedimiento legal o reglamentariamente establecido para el ejercicio de la potestad sancionadora en esta materia.

Se considerarán infracciones, en principio leves, las siguientes:

- a) Acceder a la playa desde fuera de las zonas habilitadas para ello
- b) No respetar la prohibición de entrada a la playa cuando los accesos se encuentren cerrados.
- c) No atender el requerimiento de abandonar la playa en el caso de subida de la marea y reducción de aforo.
- d) Cualesquiera otros incumplimientos de las obligaciones contenidas en el presente bando

No obstante lo anterior, tendrá la consideración de falta grave, la reiteración o reincidencia de faltas leve. Hay reiteración cuando la persona infractora hubiese cometido anteriormente dos infracciones leves.

Finalmente, tendrá la consideración de falta muy grave, la reiteración o reincidencia de las faltas graves. Hay reiteración cuando la persona infractora hubiese cometido anteriormente dos infracciones graves.

Las infracciones serán sancionadas con las siguientes multas:

- a) Infracciones leves: con apercibimiento y multa 30 euros.
- b) Infracciones graves: con multa de 300 euros.
- c) Infracciones muy graves: con multa de 1.000 euros.

Zarautz, 24 de junio de 2020

El Alcalde

Fdo: Xabier Txurruka Fernandez